# Sektore Publikoaren Aurrekontuen Estatistikak

## Emaitzen aurrerapena

# Estadísticas Presupuestarias del Sector Público

## Análisis de resultados

Eustat

2000

**Lanketa** / Elaboración:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

**Argitaraldia /** Fecha: II-2006

**Argitalpena** / Edición:

**Eustat**
**Euskal Estatistika Erakundea**
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Internet:** www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**
Administración de la C.A. de Euskadi

## SECTOR PÚBLICO VASCO AUTÓNOMO. 2000

### 1. EL SECTOR PÚBLICO VASCO AUTÓNOMO

Desde el punto de vista institucional, el ámbito de este análisis se circunscribe a la actuación económica y financiera del Gobierno Vasco y sus Organismos Autónomos y a las Administraciones Territoriales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que comprenden para cada Territorio Histórico sus respectivas Administraciones Forales y Municipales junto con sus Organismos Autónomos, además de las entidades supramunicipales (Cuadrillas y Mancomunidades de municipios), pero sin incluir el sector público empresarial dependiente de estas instituciones. A este conjunto se le denomina Sector Público Vasco Autónomo o Administración Autónoma Vasca.

#### 1.1 Ahorro Bruto

**EL AHORRO BRUTO DE LA ADMINISTRACIÓN AUTÓNOMA VASCA CRECIÓ UN 9,4% EN EL EJERCICIO DE 2000.**

Los ingresos corrientes del Sector Público Vasco Autónomo experimentaron un incremento del 8,9% en el año 2000, en tanto que los gastos corrientes alcanzaron un aumento, una décima inferior, del 8,8%. Como resultado de estas liquidaciones presupuestarias, el Ahorro Bruto Consolidado registra una subida anual del 9,4%, ascendiendo su cifra a 2.310 millones de euros en dicho ejercicio contable.

Algo más de la mitad de este Ahorro Bruto consolidado de la Administración Autónoma Vasca corresponde a la liquidación presupuestaria del Gobierno Vasco y se eleva a 1.200 millones de euros. Los ingresos corrientes del Gobierno Vasco crecieron un 6,8% frente a un 5,0% de incremento del gasto corriente y, por lo tanto, su Ahorro Bruto presenta un aumento del 13,3% sobre el del año anterior.

En el territorio de Álava, el Ahorro Bruto consolidado de la Diputación Foral y los Municipios alaveses, ha sufrido una contracción del 20,7%, descendiendo de los 190,4 millones de euros de

## EUSKAL SEKTORE PUBLIKO AUTONOMOA. 2000

### 1. EUSKAL SEKTORE PUBLIKO AUTONOMOA

Erakundeen aldetik, hau da analisi honen eremua: Eusko Jaurlaritzaren eta haren erakunde autonomoen ekonomia- eta finantza-jarduna eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-administrazioak. Lurralde-administrazio horietan sartuta daude, lurralde historiko bakoitzari dagokionez, foru- eta udal-administrazioak, euren erakunde autonomoekin batera, bai eta udalez gainetiko erakundeak (kuadrillak eta udalen mankomunitateak) ere. Kanpoan gelditzen dira, ordea, erakunde horien mendeko enpresa-sektore publikoa. Multzo horri euskal sektore publiko autonomoa edo euskal administrazio autonomoa deritzo.

#### 1.1 Aurrezki gordina

**EUSKAL ADMINISTRAZIO AUTONOMOAREN AURREZKI GORDINA % 9,4 HAZI DA 2000KO EKITALDIAN.**

Euskal sektore publiko autonomoaren diru-sarrera arruntak % 8,9 gehitu dira 2000. urtean. Gastu arruntak, berriz, hamarren bat gutxiago, % 8,8. Aurrekontu-likidazio horien emaitza gisa, aurrezki gordin finkatuak % 9,4ko urteko igoera izan du, eta 2.310 milioi euroko zifrara iritsi da kontabilitate-ekitaldi horretan.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki gordin finkatu horren erdia baino gehiago Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioari dagokio, eta 1.200 eurora iritsi da. Eusko Jaurlaritzaren sarrera arruntak % 6,8 igo dira, eta gastu arruntak, aldiz, % 5,0; hortaz, aurrezki gordina % 13,3 igo da aurreko urtekoaren aldean.

Araban, Foru Aldundiko eta udaletako aurrezki gordin finkatuak % 20,7 egin du behera; hala, bada, 1999ko 190,4 milioi eurotik 151,08 eurora jaitsi da hurrengo urtean. Hori azaltzeko, Arabako

1999 a 151,08 millones del año siguiente. Su explicación se halla en la evolución del ingreso y gasto corriente de la Diputación Foral de Álava, ya que el primero crece un 4,7% y el segundo un 8,7%, de tal manera que el Ahorro Bruto se retrae un 30,1% en el ejercicio de 2000. Los ayuntamientos alaveses, con una evolución muy paralela de sus ingresos y gastos corrientes, mantienen prácticamente el volumen de Ahorro Bruto de un año antes.

En el total consolidado de Bizkaia se ha producido un aumento del 22,2% del Ahorro Bruto. Los ingresos corrientes de la Diputación Foral han registrado una evolución positiva del 10,1% superando en casi nueve puntos porcentuales la tasa de crecimiento anual de su gasto corriente, que ha sido del 1,4%. De lo anterior se deriva un Ahorro Bruto de 338,6 millones de euros para la Institución Foral, cuyo crecimiento se eleva al 65,5% sobre los 209,7 millones de ahorro contabilizados en 1999. Los ayuntamientos de Bizkaia han realizado el movimiento inverso con un crecimiento más acusado del gasto corriente (8,9%) sobre el ingreso corriente (3,4%) y por lo tanto un retroceso de su Ahorro Bruto (-10,0%)

En el territorio de Gipuzkoa, el Ahorro Bruto consolidado de la Diputación Foral y Ayuntamientos ha retrocedido un 2,4%, siendo el saldo negativo (los ingresos menos los gastos corrientes) de la Diputación el factor que ha inclinado la balanza del conjunto consolidado. Los ingresos de Diputación crecen un 6,9% y los gastos un 8,1%, originando una reducción del Ahorro Bruto del 4,7%. Los gastos corrientes (6,5%) de los ayuntamientos de Gipuzkoa han crecido algo más que los ingresos corrientes (5,5%) y ello ha limitado a un 3,1% el incremento del Ahorro Bruto municipal.

**1.2 Capacidad (+) o necesidad (-) de financiación.**

**LA CAPACIDAD DE FINANCIACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN AUTÓNOMA VASCA MEJORA EN UN 17,3% LOS DATOS DE 1999.**

Desde el ejercicio de 1996 mantiene signo positivo la senda de la Capacidad de Financiación de la Administración Autónoma Vasca y desde 1998 ha seguido creciendo, durante tres años consecutivos, hasta alcanzar la cifra de 951 millones de euros en el 2000. Esta creciente evolución de la capacidad de financiación se deriva de un incremento mayor de los ingresos no financieros (8,7%), ingresos corrientes e ingresos de capital, que el de los gastos no financieros (7,8%).

En las liquidaciones del año 2000, los ingresos de capital apenas cubren el 8,3% de los gastos de capital, que se elevan a 1.481,26 millones de euros. Estos representan el 64,1% del Ahorro Bruto consolidado, es decir, casi las dos terceras partes del Ahorro Bruto han sido empleados en la financiación de los gastos de capital, inversiones reales y transferencias de capital.

Las inversiones reales, que suponen casi el 60% de los gastos de capital en el ejercicio de 2000, han registrado una disminución del 2,5% sobre el año anterior, mientras el otro componente, el de las transferencias de capital, ha experimentado una subida del 13,3% para los valores consolidados de la Administración Autónoma Vasca.

El Gobierno Vasco, cuyo Ahorro Bruto ha aumentado un 13,3%, mejora su Capacidad de Financiación en un 5,5%, después de haber atendido la financiación de las inversiones reales y transferencias de capital que han alcanzado tasas de crecimiento anual de 9,6% y 17,3%, respectivamente; siendo este último el componente más importante, en volumen, de este apartado.

Foru Aldundiko sarrera nahiz gastu arruntak izandako bilakaerari begiratu behar zaio; izan ere, lehena % 4,7 igo da, eta bigarrena % 8,7; ondorioz, aurrezki gordinak % 30,1 egin du behera 2000ko ekitaldian. Arabako udalen sarrera eta gastu arruntak parez pare joan direnez, aurreko urteko aurrezki gordinaren kopuruari eutsi diote.

Bizkaiko guztizko finkatuan, aurrezki gordinak % 22,2 egin du gora. Foru Aldundiko sarrera arruntek % 10,1eko garapen positiboa izan dute, eta ehunekozko ia bederatzi puntuz gainditu dute gastu arruntaren urteko hazkunde-tasa (% 1,4). Ondorioz, Foru Aldundiak 338,6 milioi euroko aurrezki gordina izan du, eta % 65,5era igo da, 1999an aurreztutako 209,7 milioiekin alderatuta. Bizkaiko udaletan, aldiz, sarrera arrunta baino gehiago igo da gastu arrunta (% 3,4 eta % 8,9, hurrenez hurren); beraz, aurrezki gordinak atzera egin du (% -10,0).

Gipuzkoan, Foru Aldundiko eta udaletako aurrezki gordin finkatuak % 2,4 egin du behera; izan ere, Aldundiko saldoa (sarrerak ken gastu arruntak) negatiboa izan da, eta, horren eraginez, egin du behera guztizko finkatuak. Aldundiko sarrerak % 6,9 hazi dira eta gastuak % 8,1; hortaz, aurrezki gordina % 4,7 murriztu da. Gipuzkoako udaletako gastu arruntak (% 6,5) sarrera arruntak (% 5,5) baino apur bat gehiago igo dira, eta, horren ondorioz, % 3,1 besterik ez da igo udaleko aurrezki gordina.

**1.2 Finantzatzeko gaitasuna (+) edo beharra (-).**

**EUSKAL ADMINISTRAZIO AUTONOMOAREN FINANTZATZE-GAITASUNA % 17,3 HOBETU DA 1999KO DATUEN ALDEAN.**

1996ko ekitalditik, positiboa da Euskal Administrazio Autonomoaren finantzatze-gaitasuna, eta 1998tik igotzen jarraitu du hiru urtez jarraian; hala, 951 milioi euroko kopurua lortu da 2000ko ekitaldian. Izan ere, finantzez besteko gastuak (% 7,8) baino gehiago igo dira finantzez besteko sarrerak (% 8,7), sarrera arruntak eta kapital-sarrerak, eta horrexegatik izan du halako garapen positiboa finantzatzeko gaitasunak.

2000. urteko likidazioetan, kapital-sarrerek kapital-gastuen % 8,3 gain hartu dituzte (1.481,26 milioi eurora iritsi dira). Aurrezki gordin finkatuaren % 64,1 dira horiek. Horrek esan nahi du kapital-gastuak, benetako inbertsioak eta kapital-transferentziak finantzatzeko erabili direla aurrezki gordinaren bi herenak.

Benetako inbertsioak -2000ko ekitaldiko kapital gastuen ia % 60- % 2,5 jaitsi dira aurreko urtearen aldean; kapital-transferentziak, berriz, % 13,3 igo dira Euskal Administrazio Autonomoaren balio finkatuetan.

Eusko Jaurlaritzak, aurrezki gordina % 13,3 handitzeaz gain, % 5,5 hobetu du Finantzatzeko Gaitasuna, benetako inbertsioak eta kapital-transferentziak (urtean % 9,6 eta 17,3 igotakoak hurrenez hurren) finantzatu ostean. Azken hori da, hain zuzen ere, kopuruari begira atal honetako osagai garrantzitsuena.

En los datos consolidados del territorio de Álava se observa una fuerte caída de la Capacidad de Financiación, que de los 68,1 millones de euros de 1999 cae hasta los 2,6 millones de 2000, llegando incluso a la necesidad de financiación de 4,15 millones de euros en el caso de la Diputación Foral. Esta necesidad de financiación tiene su origen principalmente en la contracción del 30% experimentada por el Ahorro Bruto de la Institución Foral. También decrece ligeramente la Capacidad de Financiación de los ayuntamientos alaveses, pero ello se debe a unos menores ingresos de capital y mayores gastos en inversiones reales, ya que su Ahorro Bruto supera, aunque levemente, las cifras del año anterior.

Sucede todo lo contrario en el territorio de Bizkaia donde la capacidad de financiación asciende, en términos consolidados, a 292,90 millones de euros, duplicando la cifra del año anterior. Destaca, por su importante tasa de crecimiento anual, la evolución de la Capacidad de Financiación de la Diputación Foral, que de los 23,76 millones de euros de 1999 sube hasta los 134,90 millones en el 2000. Este salto ha sido propiciado por la mejora substancial del Ahorro Bruto, principalmente y, en menor grado, por la limitación de los gastos de capital. Los ayuntamientos de Bizkaia también han podido aumentar su Capacidad de Financiación, a pesar de haber mermado su Ahorro Bruto, gracias a una superior reducción de sus inversiones reales que descienden en más de 25 millones de euros, sobre el año anterior.

El total consolidado de Gipuzkoa mejora en más de 32 millones de euros su Capacidad de Financiación, aunque su Ahorro Bruto ha perdido 6 millones de euros del año anterior. Baja ligeramente la Capacidad de Financiación de la Diputación Foral, casi en los mismos porcentajes que su Ahorro Bruto y aumenta notablemente la de los ayuntamientos de Gipuzkoa que reducen sus gastos de capital.

Arabako datu finkatuetan antzeman daitekeenez, nabarmen jaitsi da Finantzatzeko Gaitasuna; hala, bada, 1999ko 68,1 milioi eurotik 2000ko 2,6 milioira jausi da, eta ildo horretatik, Foru Aldundiak, esaterako, 4,15 milioi euro finantzatzeko beharra ere izan du. Izan ere, Foru Aldundiaren aurrezki gordinak % 30 egin du behera, eta horixe izan da finantzatzeko behar horren zergatia. Arabako udalen finantzatzeko gaitasunak ere behera egin du apur bat; baina oraingoan beste arrazoi bat dago: kapital-sarrerak gutxiago izan dira, eta benetako inbertsioen gastuak, aldiz, gehiago izan dira, aurrezki gordinak aurreko urteko kopurua gainditu baitu leunki bada ere.

Bizkaian, aitzitik, finantzatzeko gaitasunak -balio finkatuetan- gora egin du 292,90 milioi euro, eta aurreko urteko kopurua bikoiztu du. Azpimarragarria da Foru Aldundiaren finantzatzeko gaitasunak izan duen urteko hazkunde-tasa; bada, 1999ko 23,76 milioi eurotik 134,90 milioi euro arte igo da 2000an. Batik bat aurrezki gordina nabarmen hobetzeak sustatu du jauzi hori, baina kapital-gastuak mugatzeak ere izan du eraginik, modu apalagoan bada ere. Bizkaiko udaletan ere handitu egin da finantzatzeko gaitasuna, aurrezki gordina txikitu arren; izan ere, benetako inbertsioak gehiago murriztu dira, eta 25 milioi euro baino gehiago jaitsi dira, aurreko urtekoen aldean.

Gipuzkoako guztizko finkatuak 32 milioi euroz hobetu du Finantzatzeko gaitasuna, aurrezki gordinak 6 milioi euro galdu arren aurreko urtekoaren aldean. Foru Aldundiak duen finantzatzeko gaitasuna apur bat jaitsi da -ia aurrezki gordinaren kopuru berean. Gipuzkoako udalen gaitasuna, ordea, nabarmen handitu da, kapital-gastuak murriztu baitira horietan.

1. TAULA *SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUEN ESTATISTIKAK*
1. TABLA *ESTADÍSTICAS PRESUPUESTARIAS DEL SECTOR PÚBLICO*

**milioi euro / millones de euros**

**SARREREN ETA GASTUEN BILAKAERA, KATEGORIEN ARABERA, 1993-2000. EUSKAL AE**
EVOLUCIÓN DE INGRESOS Y GASTOS, SEGÚN CATEGORÍAS. 1993-2000 C.A. DE EUSKADI

| | 1993 | 1994 | Δ% | 1995 | Δ% | 1996 | Δ% | 1997 | Δ% | 1998 | Δ% | 1999 | Δ% | 2000 | Δ% |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **(I) SARRERAK GUZTIRA** TOTAL INGRESOS | 6.597,00 | 6.765,38 | 2,6 | 6.812,29 | 0,7 | 7.104,74 | 4,3 | 7.791,30 | 9,7 | 8.673,15 | 11,3 | 8.991,61 | 3,7 | 9.598,76 | 6,8 |
| **Sarrera arruntak (1)** Ingresos Corrientes (1) | 5.597,44 | 5.543,14 | -1,0 | 5.766,89 | 4,0 | 6.362,59 | 10,3 | 7.079,43 | 11,3 | 8.013,50 | 13,2 | 8.598,25 | 7,3 | 9.367,00 | 8,9 |
| **Kapital-sarrerak (2)** Ingresos de Capital (2) | 116,21 | 119,05 | 2,4 | 188,81 | 58,6 | 108,19 | -42,7 | 228,38 | 111,1 | 233,49 | 2,2 | 132,11 | -43,4 | 122,65 | -7,2 |
| **Finantza-sarrerak** Ingresos Financieros | 883,35 | 1.103,19 | 24,9 | 856,59 | -22,4 | 633,96 | -26,0 | 483,49 | -23,7 | 426,15 | -11,9 | 261,24 | -38,7 | 109,11 | -58,2 |
| **(II) GASTUAK GUZTIRA** TOTAL GASTOS | 6.706,06 | 6.379,53 | 4,9 | 6.646,82 | 4,2 | 6.688,72 | 0,6 | 7.564,60 | 13,1 | 8.192,89 | 8,3 | 8.730,90 | 6,6 | 9.314,22 | 6,7 |
| **Gastu arruntak (3)** Gastos Corrientes (3) | 4.639,24 | 4.539,65 | -2,1 | 4.919,00 | 8,4 | 5.072,55 | 3,1 | 5.840,42 | 15,1 | 6.119,43 | 4,8 | 6.487,78 | 6,0 | 7.057,28 | 8,8 |
| **Kapital-gastuak (4)** Gastos de Capital (4) | 1.423,83 | 1.262,93 | -11,3 | 1.190,77 | -5,7 | 1.163,90 | -2,3 | 1.280,64 | 10,0 | 1.383,51 | 8,0 | 1.431,53 | 3,5 | 1.481,26 | 3,5 |
| **Finantza-gastuak** Gastos Financieros | 642,99 | 576,95 | -10,3 | 537,04 | -6,9 | 452,27 | -15,8 | 443,55 | -1,9 | 689,94 | 55,6 | 811,59 | 17,6 | 775,67 | -4,4 |
| **(III) AURREZKI GORDINA (5)=(1)-(3)** AHORRO BRUTO (5)=(1)-(3) | 958,20 | 1.003,49 | 4,7 | 847,89 | -15,5 | 1.290,04 | 52,1 | 1.239,01 | -4,0 | 1.894,07 | 52,9 | 2.110,48 | 11,4 | 2.310 | 9,4 |
| **(IV) FINANTZAKETA-GAI(+) EDO BEH(-)** CAP(+) O NEC(-) DE FINANCIACIÓN (6)=(5)+(2)-(4) | -349,42 | -140,39 | -59,8 | -154,07 | 9,7 | 234,33 | - | 186,76 | -20,3 | 744,05 | 298,4 | 811,06 | 9,0 | 951 | 17,3 |

**Evolución de la capacidad (+) o necesidad (-) de financiación. 1988-2000. C.A. de Euskadi. (millones de euros)**

## GRÁFICO 1. GRAFIKOA

**Finantzaketa-gaitasunaren (+) edo -beharraren(-) bilakaera. 1988-2000. Euskal AE. (milioi euro )**




**Capacidad (+) ó Necesidad (-) de financiación en procentaje del PIB. 1990-2000. (%)**

## GRÁFICO 2. GRAFIKOA

**Finantzaketa-gaitasuna (+) edo -beharra (-), BPGaren ehunekoetan. 1990-2000. (%)**



### 1.3 Saldo neto de financiación

**EL SALDO NETO DE FINANCIACIÓN PRESENTA UNA CIFRA POSITIVA DE 233,7 MILLONES DE EUROS.**

Si a la capacidad o necesidad de financiación se le resta la variación de activos financieros (capítulo VIII de gastos menos capítulo VIII de ingresos), y se le restan también los derechos pendientes de cobro del ejercicio (diferencia entre los derechos reconocidos durante el ejercicio y los cobros líquidos efectuados de esos derechos), resulta el saldo neto de financiación , que es un concepto de superávit o déficit más amplio que el de capacidad o necesidad de financiación.

Este concepto, cuando el saldo es negativo, representa el total de recursos financieros netos que debe procurarse la Administración para hacer frente a sus necesidades globales de financiación, ocasionadas como consecuencia del desarrollo de sus actividades reales y financieras. Si el saldo es positivo refleja una situación en la que la Administración dispone de recursos suficientes para hacer frente a sus obligaciones financieras.

En el año 2000, por segundo año consecutivo, se obtiene un saldo neto de financiación positivo de 233,7 millones de euros, superando ampliamente los 91,4 millones del año anterior. Dos son los factores que, en gran medida, explican la evolución del saldo neto de financiación. En primer lugar, como ocurre en el ejercicio de 2000, el importante incremento alcanzado por la capacidad de financiación incide directamente en la evolución positiva del saldo neto de financiación y, en segundo lugar, el "pronto cobro" de los derechos o la aminoración de los derechos pendientes de cobro que viene produciéndose desde 1997 favorece el comportamiento que ha tenido este saldo.

Pero el saldo neto de financiación ha tenido comportamientos diferenciados entre las Instituciones de la Administración Autónoma Vasca. El saldo del Gobierno Vasco supera en un 10,6% su posición del año anterior, pasando de los 158, 1 millones de euros en 1999 a los 174,8 millones del siguiente ejercicio.

En el consolidado de Álava se produce el fenómeno contrario, el saldo neto de financiación de -54,1 millones de 1999 sigue aumentando en el 2000 hasta alcanzar la cifra de -116,9 millones de euros, siendo la caída de la capacidad de financiación el factor determinante de esta evolución.

El saldo neto de financiación del consolidado de Bizkaia cambia de signo en el año 2000. De un saldo de -69,5 millones pasa a uno de 114,7 millones de 1999 a 2000. Este hecho se repite tanto en las cuentas de la Diputación Foral como en las de los Ayuntamientos.

En lo referente a Gipuzkoa la evolución, aunque positiva, ha sido mucho más moderada, bajando levemente el saldo positivo de la Diputación Foral y reduciéndose hasta -3,6 millones el saldo negativo de los ayuntamientos de Gipuzkoa y sus entes.

### 1.4 Variación de tesorería imputable al ejercicio

**LA VARIACIÓN DE TESORERÍA CRECE UN 22,6% RESPECTO AL AÑO ANTERIOR.**

Si al saldo neto de financiación se le suma la variación de pasivos financieros (capítulo IX de ingresos menos capítulo IX de gastos) y, por otra parte, se le añaden las obligaciones pendientes de pago del ejercicio, entendidas como tales los que provienen de restar a las obligaciones pendientes de pago del ejercicio, los pagos líquidos realizados correspondientes a dichas obligaciones, se obtiene la variación de tesorería imputable al ejercicio.

### 1.3 Finantzaketa-saldo garbia

**FINANTZAKETA-SALDO GARBIAK 233,7 MILIOI EUROKO KOPURU POSITIBOA LORTU DU.**

Finantzatzeko gaitasunari edo beharrari finantza-aktiboen aldakuntza kentzen bazaio (gastuen VIII atala ken sarreren VIII atala) eta aurreko urtealditik kobratzeko dauden eskubideak (ekitaldian onartutako eskubideen eta eskubide horietatik egindako kobrantza likidoen arteko aldea) ere kentzen bazaizkio, finantzaketaren saldo garbia lortzen da. Horrenbestez, superabitaren edo defizitaren kontzeptu hori zabalagoa da finantzatzeko gaitasuna edo beharraren kontzeptua baino.

Kontzeptu horrek -saldoa negatiboa denean- Administrazioari eman beharreko finantza-baliabideen guztikoa adierazten du -hain zuzen ere, benetako jardueren eta finantza-jardueren ondorioz sortutako finantzatze-behar orokorrei aurre egiteko behar den guztikoa. Saldoa positiboa bada, berriz, Administrazioak finantza-betebeharrei aurre egiteko nahikoa baliabide duela adierazten du horrek.

2000 urtean, bigarren urtez jarraian, 233,7 milioi euroko finantzaketa-saldo garbia lortu da. Hala, aise gainditu dira aurreko urteko 91,4 milioiak. Bi faktoreren bidez azal daiteke, neurri handi batean, finantzaketa-saldo garbiaren bilakaera. Lehenik, 2000ko ekitaldian gertatu bezala, finantzatzeko gaitasunak edukitako igoera handiak zuzeneko eragina izan du finantzaketa-saldoaren garapen positiboan; bigarrenik, eskubideak "laster kobratzeak" edo 1997tik ordaintzeke zeuden eskubideak murrizteak sustatu egin dute saldoak edukitako jarrera.

Nolanahi ere, finantzaketa-saldo garbiak ez du beti jokabide bera izan Euskal Administrazio Autonomoaren erakundeetan. Eusko Jaurlaritzaren saldoak % 10,6 gainditu du aurreko urteko kopurua, eta 1999ko 158,1 milioi eurotik 174,8 milioi eurora igaro da hurrengo ekitaldian.

Arabako finkatuan aurkakoa gertatu da; hala, 1999an -54,1 milioikoa zen finantzaketa-saldo garbia, eta, 2000n, berriz, kopurua handitzen joan da -116,9 milioi euro arte. Finantzatzeko gaitasunak behera egitea izan da egoera horren eragile funtsezkoa.

Bizkaiko finkatuaren finantzaketa-saldo garbiak norabidea aldatu du 2000. urtean. Hala, 1999ko -69,5 milioiko saldotik 114,7 milioi eurora igaro da 2000ko ekitaldian. Foru Aldundiaren nahiz udalen kontuetan gertatu da hori.

Gipuzkoan garapena positiboa bada ere, leunagoa izan da. Hala, Foru Aldundiko saldo positiboa apur bat jaitsi da; udaletako eta udal-erakundeetako saldo negatiboa, berriz, murriztu egin da -3,6 milioi euro arte.

### 1.4 Aurreko ekitalditiko diruzaintza-aldakuntzak

**DIRUZAINTZA-ALDAKUNTZAK % 22,6 IGO DIRA AURREKO URTEKOEN ALDEAN.**

Finantzaketa-saldo garbiari, batetik, finantza-pasiboen aldakuntzak (sarreren IX atala ken gastuan IX atala) gehitzen bazaizkio eta, bestetik, aurreko ekitalditik kobratzeko dauden obligazioak -alegia, obligazioei dagozkien ordainketa likidoak ekitalditik kobratzeko dauden obligazioei kentzean sortutakoak- gaineratzen bazaizkio, ekitalditiko diruzaintza-aldakuntzak lortzen dira.

La variación de tesorería imputable al ejercicio de 2000 ha alcanzado la cifra de 1.054,15 millones de euros que supone un crecimiento del 22,6% en relación con los datos del año anterior. Si al saldo de financiación de 233,7 millones de euros se le suman los -449,7 millones de variación de pasivos financieros y se le añaden los 1.270,2 millones de obligaciones pendientes de pago del ejercicio, se obtienen la variación de tesorería del ejercicio.

Como hecho novedoso y destacable de los tres últimos ejercicios presupuestarios, resulta interesante señalar que la variación de los pasivos financieros lleva signo negativo en estos años, en los que los recursos empleados por la Administración Vasca en la amortización de la duda han sido superiores a los ingresos obtenidos a través de la contratación de nuevos fondos de endeudamiento.

Así, en el 2000 se han empleado 526,1 millones en la financiación de deudas anteriormente contraídas y solamente llega a 76,4 millones la cuantía del nuevo endeudamiento, con lo que se obtiene una variación de pasivos financieros de -449,7 millones de euros en el ejercicio.

### 1.5 Existencias finales presupuestarias

**LAS EXISTENCIAS FINALES PRESUPUESTARIAS AUMENTAN UN 31,0%.**

Si a la variación de tesorería imputable al ejercicio, se le añade el cobro de derechos pendientes de ejercicios anteriores realizados durante el año y se le resta el pago de obligaciones pendientes de ejercicios anteriores, también realizadas durante el año, resulta lo que se denomina como movimiento de caja presupuestario del ejercicio, que si se le añaden las existencias iniciales presupuestarias, da como resultado las existencias finales presupuestarias.

Como el cobro de derechos pendientes de ejercicios anteriores ha sufrido una reducción del 16,9 y los pagos de las obligaciones pendientes de ejercicios anteriores solamente han caído un 1,0%, la evolución de las existencias finales presupuestarias, cuyo crecimientos se cifra en el 31,0, ha estado marcada por el comportamiento de las existencias iniciales presupuestarias que han crecido un 34,0% y que, además, suponen el componente más importante de esta partida en volumen.

Así como las rúbricas correspondientes a los cobros y pagos de derechos y obligaciones de ejercicios anteriores no han sufrido grandes variaciones de sus cifras en los últimos años, las existencias iniciales presupuestarias han multiplicado por tres sus datos de hace 4 años.

### 1.6 Existencias iniciales extrapresupuestarias

**CAÍDA DE 159,1 MILLONES EN LAS EXISTENCIAS FINALES EXTRAPRESUPUESTARIAS.**

Las existencias iniciales extrapresupuestarias registran una bajada del 19,0% y las operaciones extrapresupuestarias del ejercicio presentan un saldo negativo de 96,8 millones de euros. En consecuencia las existencias finales extrapresupuestarias bajan de 244,7 millones a 85,6 millones en el 2000.

2000ko ekitalditiko diruzaintza-aldakuntzak 1.054,15 milioi eurokoak izan dira; horrenbestez, % 22,6 igo dira aurreko urteko datuen aldean. 233,7 milioi euroko finantzaketa-saldoari, batetik, finantza-pasiboen aldakuntzako -449,7 milioiak gehitzen bazaizkio eta, bestetik, aurreko ekitalditik ordaintzeko dauden obligazioen 1.270,2 milioiak gaineratzen bazaizkio, ekitaldiko diruzaintza-aldakuntza lortzen da.

Azken hiru aurrekontu-ekitaldietako gertaera berria eta azpimarragarria da urte horietako finantza-pasiboen aldakuntza negatiboa izan dela, kontuan hartuta urte horietan Euskal Administrazioak zorra amortizatzeko erabili dituen baliabideek gainditu egin dituztela zor-funts berriak kontratatzean lortutako sarrerak.

Horrela, bada, 2000ko ekitaldian 526,1 milioi erabili dira aurretik hartutako zorrak finantzatzeko, eta zorpetze berria 76,4 milioikoa besterik ez da izan; honenbestez, finantza-pasiboen aldakuntza -449,7 milioi eurokoa izan da ekitaldi horretan.

### 1.5 Bukaerako aurrekontu-izakinak

**BUKAERAKO AURREKONTU-IZAKINAK % 31,0 HANDITU DIRA**

Ekitalditiko diru-zaintzen aldakuntzari, batetik, urtean egindako aurreko ekitalditiko eskubide-kobrantzak gehitzen bazaizkio eta, bestetik, urtean egindako aurreko ekitalditiko obligazioen ordainketak kendu, ekitaldiko aurrekontuen kutxa-mugimendua deritzona lortuko da, eta azken horri hasierako aurrekontu-izakinak gehituz gero, bukaerako aurrekontu-izakinak lortuko dira.

Aurreko ekitalditiko eskubide-kobrantzak 16,9 murriztu direnez eta aurreko ekitalditiko obligazioen ordainketek % 1,0 besterik ez dutenez behera egin, hasierako aurrekontu-izakinek baldintzatu dituzte bukaerako aurrekontu-izakinak; hala, bada, hasierako izakin horiek % 34,0 igo dira eta partida horretako osagai garrantzitsuena dira kopuruari begira; ondorioz, bukaerako izakinak 31,0 igo dira.

Aurreko ekitalditiko eskubideen eta obligazioen kobrantzei eta ordainketei dagozkien izenpeak ez dira asko aldatu kopuruetan, eta hasierako aurrekontu-izakinek hirukoiztu egin dituzte duela lau urteko datuak.

### 1.6 Aurrekontuz hasierako bukaerako izakinak

**AURREKONTUZ KANPOKO BUKAERAKO IZAKINEK 159,1 MILIOI EGIN DUTE BEHERA.**

Aurrekontuz kanpoko hasierako izakinak % 19,0 jaitsi dira, eta ekitaldiko aurrekontuz kanpoko eragiketek 96,8 milioi euroko saldo negatiboa izan dute. Ondorioz, aurrekontuz kanpoko bukaerako izakinak 244,7 milioitik 85,6 milioira jaitsi dira 2000ko ekitaldian.

### 1.7 Existencias finales totales

**LAS EXISTENCIAS FINALES TOTALES HAN EXPERIMENTADO UN AUMENTO DEL 24,1%.**

A pesar de la caída sufrida por las existencias finales extrapresupuestarias, el fuerte incremento de las existencias finales presupuestarias (31,0%) mantiene en un 24,1% la tasa de crecimiento anual de las existencias finales totales que ascienden a 2.556 millones de euros.

### 1.7 Bukaerako izakinak guztira

**BUKAERAKO IZAKINAK GUZTIRA % 24,1 HANDITU DIRA**

Aurrekontuz kanpoko bukaerako izakinek behera egin arren, bukaerako aurrekontu-izakinak nabarmen igo zirenez (% 31), bukaerako guztizko izakinen urteko hazkunde-tasak % 24,1ari eutsi dio, eta 2.556 milioi eurokoa izan da.

## 2. INGRESOS

Los ingresos de la Administración Autónoma vasca ascienden a 9598,8 millones de euros en el 2000, habiendo experimentado un crecimiento del 6,8% respecto del año anterior. Pero han sido los ingresos corrientes, que abarcan el 97,6% de los ingresos totales, lo que, con su tasa de crecimiento del 8,9% han arrastrado hacia arriba la evolución de los recursos presupuestarios.

Los ingresos de capital decrecen un 7,2% y los ingresos financieros caen un 58,2%, siguiendo la senda decreciente del último período. Los ingresos financieros vienen bajando desde 1995 y las cifras de 2000 representan escasamente un 10% del montante alcanzado en 1994 (109,1 millones de euros en el 2000 frente a los 1103,9 millones de 1994). La mejora inintemrrumpida de la capacidad de financiación de la Administración Autónoma Vasca, desde los mediados de la década de los noventa, ha ido reduciendo progresivamente el recurso a nuevas emisiones de deuda o adquisición de nuevos préstamos para financiar y equilibrar las liquidaciones presupuestarias.

## 2. SARRERAK

Euskal Administrazio Autonomoaren sarrerak 9598,8 milioi eurokoak izan dira 2000. urtean, eta % 6,8 igo dira aurreko urtearen aldean. Sarrera arruntek gora bultzatu dituzte aurrekontuen baliabideak; gogoan izan behar baita guztizko sarreren % 97,6 hartzen dutela euren gain eta % 8,9ko hazkunde-tasa izan dutela.

Kapital-sarrerek % 7,2 egin dute behera, eta finantza-sarrerek, berriz, % 58,2, azken denboraldiko beherakadaren bidetik. Finantza-sarrerek 1995etik daramate beheranzko bidea, eta 2000ko kopuruek nekez erdietsi dute 1994an lortutako kopuruaren % 10 (109,1 milioi euro izan dira 2000. urtean; 1994an, aldiz, 1103,9). Euskal Administrazio Autonomoa laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik finantzatzeko gaitasuna etengabe hobetzen joan denez, gero eta gutxiagotan jo du zorrak jaulkitzeari edota maileguak hartzeari aurrekontu-likidazioak finantzatzeko eta orekatzeko.

**Evolución de ingresos por tipo. C.A. de Euskadi. 1990-2000. (millones de euros)**

**GRÁFICO 3. GRAFIKOA**

**Sarreren bilakaera, motaka. Euskal AE. 1990-2000. (milioi euro)**




En el apartado de los ingresos corrientes, destacan por su importancia cuantitativa el capítulo 1 y 2 de Impuestos Directos e Indirectos, que entre ambos cubren el 90% de dichos recursos, sumando un total de 8.447 millones de euros.

Los impuestos indirectos han obtenido un crecimiento anual del 11,3%, superando en algo más de 5 puntos la tasa de evolución de los impuestos directos (6,2%). Hasta el año de 1998 los in-

Sarrera arrunten atalean, bereziki garrantzitsuak dira Zuzeneko eta Zeharkako Zergen 1 eta 2 kapituluak, bien artean baliabideen % 90 hartzen baitute, alegia 8.447 milioi euro.

Zeharkako zergak % 11,3 igo dira urtean, eta bost puntuz baino gehiago gainditu dute zuzeneko zergen garapen-tasa (% 6,2). 1998 arte, zuzeneko zorretatik zetozen sarrerek zeharkakoetatik

gresos provenientes de los impuestos directos superaban a los que procedían de los impuestos indirectos, pero en los dos últimos ejercicios (1999 y 2000) estos últimos han llegado a ser más cuantiosos que aquellos.

Los ingresos por Tasas han aumentado el 5,8%, las transferencias corrientes el 3,7% y los ingresos patrimoniales un 55,2%, si

zetozenak gainditzen zituzten; azken bi ekitaldietan (1999 eta 2000), ordea, alderantziz gertatu da.

Tasetatik ateratako sarrerak % 5,8 igo dira, transferentzia arruntak % 3,7 eta ondarezko sarrerak % 55,2, nahiz eta horien ekar-

## GRÁFICO 4. GRAFIKOA

**Evolución de los principales impuestos. C.A. de Euskadi. 1990-2000. (millones de euros)**

**Zerga nagusien bilakaera. Euskal AE. 1990-2000. (milioi euro)**




bien sus aportaciones son comparativamente menores que el del resto de capítulos de ingresos corrientes.

En el ranking de ingresos por clases de impuestos, figura en primer lugar el IVA con 2.813 millones de euros, habiendo crecido un 11,6% sobre los datos del año anterior.

Desde la perspectiva territorial, el mayor crecimiento ha tenido lugar en Bizkaia, con una tasa anual del 15,8%, duplicando el incremento porcentual de Álava (7,2%) y casi también el de Gipuzkoa (8,4%). El IVA representa el 30% de los ingresos corrientes y el 29,3% de los ingresos totales de la Administración Autónoma Vasca.

